

Taula gainean, beti maldan behera

Hamargarren Agroskate jaialdia egingo da San Roke egunean


 Agroskateak Gernika du hiriburu, eta, horregatik, abuztuaren 16an *skater* praka zabaldun eta kapeladunek hartuko dute hiria. Izan ere, aurtengoan X. Agroskate egingo da Mestikabasoko Pesebre Skate-parkean.

Bertan, urtero bezala, Euskal Herriko eta atzerriko hainbat irristalari eta kuskuxero bilduko dira, irristailuarekin duten menpekotasuna erakutsiz. Ikuskizuna eta *skate* erakustaldia dira jaiaren muina une horretan.

Rober Garai eta Ritxar Arejita Black Lagunack-eko kideekin bildu gara aurtengo X. Agroskatearen gainean hitz egiteko. Euskal Herrian egiten den *skate* bilerarik zaharrena eta berezietako bat da, eta, lehiaketan baino gehiago, *skate* profesional zein amateur-en *free* erakustaldian datza jaialdiaren muina.

Aurtengo Agroskatea «hamargarrena denez, ahalegin berezia egin dugu, nolabait jaialdiari osagarri berriak eskaintzeko», azaldu digute antolatzaileek. Aurtengo berezitasunetako bat jaialdiaren iraupena da. «20 orduan, etenik gabe arituko gara patinatzen», diosku Ritxar Arejitak: «San Roke egunean eguerdiko 12:00etan hasi eta hurrengo eguneko goizaldeko 07:00ak arte izango gara Mestikabasoko landetan».

«Ahalegin berezi honek behar baino aurrekontu handiagoa eskatzen zigun», adierazi digu, «eta inguruko tabernariekin lortu dugu beste finantze bat; hau da, ez bakarrik udal finantzaketa, finantzaketa pribatua ere behar izan dugu».



Aurtengo Agroskate jaialdia iragartzen duen kartela.

Aurtengo berezitasunetako bat jaialdiaren iraupena da: 20 orduan arituko dira patinatzen, etenik gabe

Proba klasiko eta berriak

Ekitaldi nagusiak jakinak dira dagoeneko, eta hasiera batean zorakeria zirudiena proba klasikoak dira gaur egun:

Txiki geratu da Mestikabaso

«Gero eta jende gehiago biltzen da Agroskatean», azaldu digu Ritxi Arejitak. «Nolabait topea jo dugula esan daiteke. Skatepark-a gure ekimen bezala erakizten eta egun ez du ematen biltzen den jende kopurua hartzeko», azaldu digu SkateBlack Lagunackeko kideak. «Azken urteotan bilakaera bat somatu dugu, hau da, etxekoentzat egindako skate konzentrazio batetik Euskal Herri mailako ospetsuena izatera pasatu gara. Guk gero eta maila altuago eskeintzea nahi izan dugu eta skaterak erantzun ona eskeini digute urtez urte». Hala ere, ez direla garai onenak adierazten digute Skateblack Lagunack-eko kideek. Nahiz eta, 2.000 pertsonatik gora bildu konzentrazio honetan, espazio eta finantziario faltagatik, «Mestikabaso txiki geratu zaigu». Horregatik datorren urtean, kokapena birplanteatu beharra izango dute. «Oraindik ikusi beharra dago, baina litekena da Donostira edota Bilbora joatea».

horien artean ditugu Agrobongo 2000, su artean patinatzea; Skatebarreno Destroy eta Skatenbolas, larrugorrian patinatzea. Berrikuntzak ere izango dira; Finger Board izenekoa izango da ikusgarrienetako bat. «Hau da, atzamarrekin patinatzea taula txiki batean eta *skate* parkearen antzeko maketa batean».



KOPI
Fotokopiak Z/B
Fotokopia digitalak
Koloretako fotokopiak
Koloretako edizioak



LASTER
Transparentziak
Enkuadernazioak
Plastifikazioak
Fax Publikoa

KOPI LASTER Artekalea, 5 - 48300 GERNIKA
Tel./Faxa: 946 254 714 E-mail: kopilaster@jet.es

MULTI OPTICAS

OPTIKA
Eguren
GERNIKA


Juan Kaltzada, 12
Tel.: 94 625 04 51 - 625 18 66
Faxa: 94 625 55 97
GERNIKA - LUMO

Domingo Bernaola, 1
Tel.: 94 625 03 23
GERNIKA - LUMO

San Juan, 2
Tel.: 94 625 68 75
GERNIKA - LUMO

Aita Elorriaga, 20 - Tel.: 94 615 66 36 - 48100 MUNGIA

AROTZERIA METALIKOA
LAU • PREST



Fabrikatzaileak gara

- ALUMINIOZKO ATEAK ETA LEIHOAK, IRRISTATZAILEAK ETA ERABILGARRIAK
- ZUBI TERMIKOEN HAUSTURA
- LANA ERABAT AMAITZEA: PERTSIANAK, IGELTSEROTZA,...

T-Faxa: 94 625 72 60
Mug.: 609 38 37 73

Ibarra, 19 - 7 NABEA - BEHE PI. GERNIKA